



FESTA DEZAGUN GAURDANIK GEROA!

Aurten ere, San Juan suek iragarriko dute gure herrietako jaiak iritsiko direla. Gogoa sentituko duzu, betebehar, estres, kontrol eta gehiegizko planifikaziotik aldenduta, aspaldiko lagunak, senideak, bizilagun maitatu edo ditxosozko horiekin batera kaleko giroaz gozatzeko. Baino aurten ere, zeure buruari galdeztuko diozu zenbat erasoren aurrean erantzun beharko duzun; edo zenbat desfase eszena negargarri ikusiko dituzun, zenbat aldiz sentituko zaren lekuz kanpo eta zenbat aldiz zokoratuko zaituzten jai guneko bazterrera betiko koadrila horiek.

Hainbestetan galdeztu diozu zeure buruari hau ote den desio duzun jai eredu, nola bilakatu genitzakeen festak espazio askatzaile eta, sistemari kritika zorrotza eginez, praktikan bestelako harreman ereduak sortzeko. Hainbestetan galdeztu diozu zure buruari, baina hain gutxitan hartu duzu denbora kolektiboki erantzunak aurkitzeko eta gaurdanik zure festen geroa amesteko. Bada, festa dezagun gaurdanik geroa!

Izan ere, festak ez dira jendartetik at dauden armonia eta poz gune isolatuak. Festak politikoak dira, guztiontzat. Eduki sinbolikoa duten jendarte eta kultur adierazpenak dira, errealtitatearen adierazle kondentsatuak. Jaietan, norbanakoa kolektibora hurbiltzen duten prozesu subjektibo eta objektiboak ematen dira. Beraz, festak bizitzaren erdigunean daude, jendartearen balioak, nortasunak, ideologiak eta egiturak birstortzen dituztelako. Jaiek jendartean dauden gatazkak, zapalkuntzak eta diskriminazioak adierazten dituzte: askotariko hierarkiak, botere harremanak, indarkeria, rol banaketa... Orokorean, hegemonikoak diren genero eredu eta heteroaraua indartuz.

Jai eredu herritarren parte-hartze mailarekin neur liteke. Parte-hartze integral eta erreal batek, jai, kontsumo, errentagarritasun eta aisiaaldi ereduaren inguruko errotiko birplanteamendua dakar, gaur egungo ereduan askok ez baitugu lekurik. Jaietan parte izateak hauxe esan nahi du: prozesua diseinatzeko erabakimena izatea, ekarpena egiteko besteek zein norberak bere buruari autoritatea ematea, komunitate baten parte sentitzeak eskaintzen duen autoestimua izatea, ikusgarri izatea bakoitzak aukeratzen duen moduan (eta ez inposatzen diren estereotipoen arabera), lan-banaketa parekoa izatea eta hainbat lan kolektibizatzea, askotariko espazioetan seguru egoteko eskubidea bermatzea eta gozatzeko aukera izatea. Eta noski, jaietan parte-hartzea ez da soilik plazan edo kalean ematen; bertan egon ahal izateko, etxe nahiz sukaldeetan egiten diren lanak ere funtsezkoak baitira.

Beraz, auzia ez da soilik gaur egungo eredu *partxeatzea*, adibidez, emakume batzuk ikusgarriago egitea. Parte-hartzea ez baita "gure jaietara" beste batzuk gonbidatzea, baizik eta jaien planteamendua bera elkarrekin negoziaztea eta berreraikitza, gure kokalekua aztertzea, lekuz mugitzea, entzutea eta botere desorekak gutxitzeko baliabideak sortzea. Honek, ordea, anitzasuna modu konplexuago batean lantzea eskatzen du. Hau da, komunitatea osatzen dugun askotariko herritar eta taldeak festetako espazioetan subjektu aktibo izateko beharrezko da kudeaketa-prozesuei arreta jarri eta modu kontzientean gauzatzea.

Anitzasuna, ez baita ezberdinen batura edo espazio mixtoak sortze hutsa, balio konpartitu batzuen gainean espazio (edo festa) komunak eraikitzea baizik.

Konplexua dirudien bide honez gain, hala ere, urteak daramatzagu parte-hartzearen inguruko oinarrizko aldarrikapenak egiten. Izan ere, argi daukagu emakumeon parte-hartza mugatzen, baldintzatzen, zokoratzen edo normaltasunez kuestionatzen duten jaiak dauden bitartean, ezingo garela jai eredu parte-hartzaleez aritu. Zentzu honetan, gogora ekarri nahi ditugu, mutil-dantzari izena eta izana aldatu nahi dioten kideek, hogei urte beteko dituen Irungo alarde parekideak eta Hondarribiko Jaizkibeleko lagunek egindako lan guztia, adibidez: Zorionak eta eskerrik asko!

Beraz, emakumeok* ez dugu zati izan nahi, ez gara “beste horiek”; ez jaietan, ez inoiz. Gu baikara festa, komunitatea eta herria bera. Parte bat izan beharrean, osotasunean murgiltzera irakatsi digu borroka feministak. Horregatik guztiagatik, emakumeok jaietan ikuskizun eta dantzalekuen parte izan behar gara, baina ez espektakulu edo erakarpen turistiko gisara. Guretzako plazera bilatu nahi dugu, eta ez beti besteentzat plazer iturri izatea, patriarkatuak agindu moduan. Bagara nor erabakitzeko, nola, norekin eta noiz gozatu nahi dugun, etengabe epaituak edo erasotuak ez izateko eskubide osoz.


Festa dezagun gaurdanik geroa! Herritarrok jaietan ikusle edo hartzale hutsak izan beharrean, jaso besterik egiten ez dugunok, baliatu ditzagun lotura komunitarioak eta gure indar sortzailea bestelako ereduak eraikitzeo. Erreparatu diezaiongune bidearen nolakotasunari, autogestio zein auzolanaren logikan sakonduz, gaurko eredu patriarkalaren rol banaketa eta indarkerien erakusleihoa izan beharrean, bilakatu ditzagun jaiak amesten dugun herriaren agertoki.

Norabide horretan, ate joka ditugun hainbat eta hainbat galdera erantzuteko prozesu kolektibo baten beharra mahaigaineratzen dugu: Zelako janari, edari eta drogak behar izaten ditugu ongi pasatzeko? Zeri erantzuten dio horrek, edo nondik dator kontsumitzen duguna? Zer da jaiak *errentagarriak* izatea? Nor falta da festa lekuetan eta zergatik? Nola eta norentzat erabakitzan dira egitarauak? Parte gara? Zer jartzen dugu balioan festetan? Gaueko giroaz gain, eguneko ekimen edo harremanak zaintzen al ditugu? Jaietan zeinek egiten ditu ezkutuko lanak? Nork dauka nahi bezala gozatzeko aukera? Zeini ematen zaio erasotzeko eskubidea? Espazio seguruak bermatzen ditugu guztiontzat?

Askotarikook elkarrekin nahi ditugun jaiak irudikatzeko eta hurrengo urratsak marrazteko, galdera berriak identifikatu eta kolektiboki erantzunak topatzeko prest al gaude?

Euskal Herriko Bilgune Feminista

Euskal Herrian, 2018ko udan



FESTA DEZAGUN GAURDANIK GEROA!

(Festejemos desde hoy el modelo que queremos para mañana)

Este año el fuego de San Juan anunciará de nuevo que llegan las fiestas de nuestros pueblos. Tendrás ganas de dejar a un lado las obligaciones, el estrés, el control y la planificación excesiva para disfrutar del ambiente de la calle con las amistades de toda la vida, familiares o con las personas que quieras. Pero este año te preguntarás de nuevo a cuántas agresiones tendrás que hacer frente; o cuántas escenas de desfase lamentables tendrás que ver, cuántas veces sentirás que estás fuera de lugar y cuántas veces te arrinconarán en una esquina del recinto festivo las cuadrillas de siempre.

Las fiestas son políticas. Son una expresión del contenido simbólico que tienen la sociedad y la cultura; son indicadores de la realidad. Se sitúan en el centro de la vida puesto que reproducen los valores, personalidades, ideologías y estructuras de la sociedad. En general, las fiestas expresan los conflictos, opresiones y discriminaciones de la sociedad, reforzando los modelos de género hegemónicos y la heteronorma.

El modelo festivo podría medirse a través de la participación de la ciudadanía. Una participación integral y real trae consigo un replanteamiento radical sobre el consumo en fiestas, la rentabilidad y el modelo de ocio, puesto que muchas personas no tenemos sitio en el actual modelo. La participación en las fiestas significa tener poder de decisión en el proceso de diseño, dar autoridad tanto a otras personas como a nosotras mismas para hacer propuestas, contar con la autoestima que otorga el sentirse parte de una comunidad, ser visible de la manera en que cada una decida (y no según lo que imponen los estereotipos), una distribución del trabajo similar y la colectivización de las diferentes tareas, asegurar el derecho a la seguridad en los diversos espacios y tener la oportunidad de disfrutar. Y, por supuesto, la participación en las fiestas no se da solo en el espacio público o en la calle; puesto que, para poder estar ahí, los trabajos que se hacen tanto en casa como en las cocinas son fundamentales.

Por tanto, no se trata solo de “parchear” el actual modelo, por ejemplo, haciendo más visibles a algunas mujeres. Porque la participación no significa invitar a otras “a nuestras fiestas”, sino negociar y reconstruir entre todas las personas el propio planteamiento de las fiestas, analizar nuestra posición, moverse de lugar, escuchar y crear herramientas para disminuir los desequilibrios de poder. Todo esto, en cambio, pide que se trabaje la pluralidad de un modo más complejo. Es decir, para que la diversidad de personas y grupos seamos un sujeto activo de las fiestas, es necesario prestar atención al proceso de organización y llevarlo a cabo de un modo consciente. Porque la diversidad no significa la suma de diferentes o la simple creación de espacios mixtos, sino el construir espacios (o fiestas) comunes en base a unos valores compartidos.

Por otra parte, tenemos claro que mientras existan fiestas que limitan la participación de las mujeres, la condicionan, la arrinconan o la cuestionan con normalidad, no podemos hablar de un modelo festivo basado en la participación. En este sentido, queremos recordar, por ejemplo, a quienes van cambiando nombre y esencia a expresiones como la “mutil-dantza”, el alarde paritario de Irun que cumplirá 20 años y todo el trabajo que han realizado desde Jaizkibel en Hondarribia: Zorionak eta eskerrik asko! (Felicitaciones y muchas gracias).

Por tanto, las mujeres* no queremos ser un trozo, no somos “las otras”; ni en las fiestas, ni nunca. Las mujeres tenemos que ser parte de los espectáculos y de los espacios de baile, pero no como una atracción turística. Queremos buscar el placer para nosotras mismas y no ser siempre la fuente de placer para el resto, tal y como ordena el patriarcado. Podemos decidir cómo, con quién, y cuándo queremos disfrutar, con todo el derecho a que no se nos juzgue constantemente o nos agredan.

Utilicemos las conexiones comunitarias y nuestra fuerza creativa para construir otros modelos festivos, activamente y no solo como meras espectadoras o destinatarias. Fijémonos en la calidad del camino, profundizando en la lógica de la autogestión y el *auzolan* (modelo de trabajo comunitario); en vez de ser un escaparate del reparto de roles y de la violencia del actual modelo patriarcal, convirtamos las fiestas en ese escenario del pueblo con el que soñamos.

En ese sentido, ponemos encima de la mesa la necesidad de un proceso colectivo para responder a diferentes preguntas que llaman a nuestra puerta: ¿qué tipo de comida, bebida y drogas necesitamos para pasarlo bien? ¿a qué responde o de dónde viene lo que consumimos? ¿qué significa que unas fiestas sean rentables? ¿quién falta en los espacios festivos y por qué? ¿cómo y para quién se deciden las programaciones?, ¿somos parte de ellas?, ¿a qué se da valor en las fiestas? ¿además del ambiente de la noche, cuidamos las actividades y relaciones durante el día? ¿quiénes realizan el trabajo oculto en las fiestas? ¿quién tiene la posibilidad de divertirse tanto como quiera? ¿a quién se le da el derecho a agredir? ¿Garantizamos espacios seguros para todo el mundo?

¿Estamos preparadas para identificar nuevas preguntas y encontrar las respuestas de manera colectiva para imaginar entre todas las fiestas que queremos y trazar los siguientes pasos?

Euskal Herriko Bilgune Feminista

Euskal Herria, verano de 2018